



ELKARBIZITZA PLANA



IKASBIDEA IKASTOLA IPI
(2013 -2017)

2012-2013 ikasturtean egina

www.elkarbizitzaikasbidea@gmail.com

AURKIBIDEA

1.- SARRERA.....	1
2.- GURE IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK.....	2-3
3.- GURE ESKOLAKO ELKARBIZITZA DEFINIZIOA	3
4.- GURE ELKARBIZITZAREN DIAGNOSTIKOA.....	4-5
5.- HELBURUAK.....	5
6.- ELKARBIZITZA BEHATOKIA.....	6-8
6.1.- KIDEAK	
6.2.- FUNTZIOAK	
6.3.- FUNTZIONAMENDUA	
7.- ELKARBIZITZA PLANAREN ANTOLAKUNTZA-IRIZPIDEAK ETA FUNTZIONAMENDUA.....	8-9
7.1.- OSATZE, ONARPEN ETA APLIKAZIO-IRIZPIDEAK	
7.2.- IKASTETXEKO BESTE DOKUMENTUEKIN LOTURA- IRIZPIDEAK	
7.3.- JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	
8.- ELKARBIZITZA PLANAREN HEDAPENA.....	9

1.- SARRERA.

Ikasbidea Ikastolako eskola-komunitatea osatzen dugun estamentu guztiok badakigu gizakiok gizartean bizi garela eta gure egunerokotasunean besteekiko harremana eta komunikazioa behar-beharrezkoak eta oso garrantzitsuak direla. Pertsonak garen neurrian, gure izaerak ere ezberdinak dira. Guzti hau dela eta, gatazka hortxe dago beti noiz agertuko.

Gure ikastetxean garbi izan nahi dugu elkarbizitza zer den, zein baliok osatzen duten elkarbizitza eta zeintzuk diren balio horiek lortzen lagunduko dizkiguten arauak. Balio hauek ezagutu, erakutsi eta praktikan jarri behar dira, norberak barneratu eta bereak egin ditzan, indarrez edo behartuta ezarritako balioak izan ez daitezen.

Ikasbidea Ikastolan elkarbizitza positiboa bultzatu nahi dugu, giro atsegina eta lasaia bideratu nahi dugularik inolako menpekotasuna baztertuz. Gure eguneroko elkarbizitzan konfiantza, elkarri entzutea, tolerantzia, errespetua eta enpatia oinarri izango dira guztion arteko harremanetan, egia baita aniztasuna aberasgarria dela.

Elkarrekin bizitzea ezinbestekoa denez, gure ikastetxean pertsonak bere osotasunean garatzen lagunduko duen elkarbizitza positiboa landu nahi dugu. Gatazkak gehienetan erasoengatik, gaizki- ulertuengatik eta interes ezberdinak dauzkagulako sortzen dira. Guk gatazka-egoera horiek ikasteko aprobetxatu nahi ditugu beharrezkoak diren konpetentziak garatuz, gatazkak era egokian bideratuz gerorako onuragarriak direla deritzogu eta.

Gatazka hauek guztiak errazago eta denontzat era atseginagoan konpontzea lortuko dugu horiei aurre egiteko bideak eta balioak konpartitzen baditugu. Hortaz, alde batetik, gure eskubideak eta bestetik, gure zeregin, betebeharrak eta mugak argitu eta adosteko ahalegin handiak egingo ditugu.

2.- GURE IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK.

Ikasbidea Ikastola IPI 1973. urtean sortu zen; eta Arabako Foru Aldundiaren menpean egon zen, harik eta 1985. urtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari transferitu zitzaien arte, Arabako beste ikastola batzuekin batera. Hezkuntza Proiektuak dioen bezala, *“gure ikastola euskal ikastetxea da, titulartasun publikokoa, integrala eta ez konfesionala”*.

Ikasbidea Ikastola IPI Arabako Durana herrixkan dago kokatuta, Arratzu-Ubarrundiako udalerrian, Gasteiztik 7 kilometrora.

Gutxi gorabehera, ikasleen % 28 inguruko 42 herritatik datoz, eta Gasteiztik gainerako % 72a. Gasteizko Lakuako esparru bat dagokigu; beraz, Duranakoek izan ezik, beste ikasleek guztiek garraioa behar izaten dute ikastolara etortzeko.

Gure ikastola ikastetxe integrala denez, 4 hezkuntza-etapa eskaintzen ditu:

- Haur Hezkuntza (2-6 urte)
- Lehen Hezkuntza (6-12)
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16)
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ondokoa (16-18)

Gaur egun, **1.171 ikasle** ditugu. Haietatik 212 + 54 (2 urtekoen gelan) Haur Hezkuntzan daude; 446, Lehen Hezkuntzan (maila bakoitzean 3 linea); Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 360 ikasle (4 linea eta Curriculum Aniztasuneko talde bat); eta Batxilergoan, 99 ikasle, maila bakoitzean 2 taldetan banandurik.

Azken urteotan egindako Ebaluazio-Diagnostikorako informazioaren arabera ikastetxeko familien maila ekonomiko eta kulturala ertain-altua da.

Etapak guztiak **D** hizkuntza eredukoak dira. Haur Hezkuntzako 3 urtekoen gelatik Lehen Hezkuntzako 2. mailara arte “Mantendu” ereduak eskaintzen zaie ama-hizkuntza euskara duten ikasleei. 2009-2010 ikasturtean bildutako datuen arabera, ikasleen % 26,56ren jatorrizko hizkuntza euskara da.

Guztira, **118 irakasle** gara: 52 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta 66 DBHn eta DBHOn. Ikasle eta irakasleez gain, **administrazioko** eta **zerbitzuetako 54 langile** daude: jangelako 39 begirale, 9 sukaldari, 5 atezain eta administratibo bat.

Merezi du ikastetxeak dituen beste zerbitzu batzuk nabarmentzea, erabiltzaile ugari baitituzte:

Eskola-garraioa: Ikaslegoaren % 93k garraioa erabili behar du ikastetxera etortzeko. HH eta LMHko ikasleen autobusetan begirale bana dago. DBH eta DBHOko ikasleen autobusetan, berriz, ez.

Jantokia: 2010-2011 ikasturtetik aurrera, Administrazioak kudeatzen du zuzenean. Azken urteotan, jantokia erabiltzen duten ikasle kopuruak gorakada handia izan du; hala, 2012-2013 ikasturtean, HH, LH eta DBHko ikasleen % 78era ailegatu da. Jantokiko zereginak eta funtzioak aurrera eramateko, berariaz liberatutako irakasle bat eta 39 begirale daude.

Eskolaz kanpoko ekintzak:

.- Jantokiko denbora librean (12:00 – 14:30) antolatzen diren ekintzak burutzeko AMPAk kontratatutako 14 monitore daude. Ekintzak honako hauek dira: kapoeira, antzerkia, ingelesa, musika-koreografia, abesbatza, eskulanak, jolas musikalak eta xakea.

.- Arratsaldeetan eskola bukatu eta gero (16:30 – 17:30) burutzen diren ekintzak judo eta saskibaloia dira eta horretarako AMPAk kontratatutako 5 monitore daude.

3.- GURE ESKOLAKO ELKARBIZITZA DEFINIZIOA.

Ikastetxean parte hartzen dugun pertsona guztiontzat:

**ELKARBIZITZA, BETI ERRESPETUAN
OINARRITURIK, ZORIONTSUAGOAK IZATEKO
ERAIKI BEHAR DUGUN HARREMAN
OSASUNTSUA DA.**

Horretarako, desberdinak garela onartzea behar-beharrezkoa da eta baita guztiok eskubide eta betebehar berdinak ditugula ere. Horrez gain, harreman hori benetan lortu nahi badugu, besteari lagundu behar izango diogu, adeitasunez tratatu, bere lekuan jarri, esateko daukana entzun... eta, ahal izanez gero, gure irribarrea oparituko diogu.

4.- GURE ELKARBIZITZAREN DIAGNOSTIKOA.

Gure ikastetxeko Elkarbizitzaren Diagnostikoa egiteko azken urteotan egindako guztia aztertu dugu:

2009-2010 ikasturtean, Elkarbizitza Proiektua sortu genuenean, estamentu guztiok galdetegi bitartez elkarbizitzaren balorazioa egin genuen eta momentu horretan ateratako ondorioak oinarritzat hartu ditugu. Horrez gain, oso baliogarriak izan dira, alde batetik, ikasleekin Tutoretza saioetan erabilitako materialak eta beraiek egindako hausnarketak; eta bestetik, irakasleek eta Zuzendaritzakoek etapa guztietan eta estamentu guztietan elkarbizitza-ikuspegi bateratua izateko egin ditugun ahaleginak.

Diagnostiko honetatik atera ditugun **ONDORIOAK** honako hauek dira:

1. Ikastetxeko komunitate osoaren identitate kolektiboa, batez ere Ikasbidea Ikastolako partaide izateko sentimenduak, bultzatu beharra nabaritu dugu.
2. Ikastetxean betidanik saiatu gara komunitateko kide guztien arteko harremanak ondo bideratzen eta sortu izan diren gatazkei irtenbide baikorra eta hezitzailea bilatzen. Dena den, jarrera hau elkarbizitzarako oso garrantzitsua denez, gure eguneroko lanean bide beretik jarraitzeko beharra ikusten dugu.
3. Ikasle batzuen artean bizi izan ditugun hainbat gatazka ikusita, gatazka horiei nola egin aurre aztertu behar dugu. Horretarako, berdinen arteko tratatu txarrak eta gatazkak konpontzeko protokolo edo irizpide batzuk adostu behar izango genituzke; beti ere, gatazka hauei irtenbide bat eman nahian.
4. Nahiz eta orain arte gure ikastetxean integrazio arazo handirik ez egon, egia da ikasle berrien etorrerak noizbehinka gatazkatxoren batzuk sortu dituela eta eragina izan duela eguneroko elkarbizitzan. Egoera berezi

hauetan zer egin behar den badago jasota Harrera Planean. Dena den, hurrengo urteotan ikastetxeko egoeran aldaketak egongo balira, Harrera Plana bera ere berrikusteko edo egokitzeko beharra egon daiteke.

5. Eskola-komunitateko kide guztiek beraien eskubide eta betebeharrak ongi ezagutu behar dituzte, gatazkak sortzen diren momentuetan hobeto kudeatu ahal izateko.
6. Ikasleen arteko elkarlana bultzatu beharra ikusi dugu batzuetan ikasleek talde lanetan modu egokian aritzen ez dakitelako.
7. Elkarbizitza Plana (elkarbizitza kontzeptua, antolaketa, kudeaketa...) eskola-komunitate osoari zabaldu beharra ikusten dugu guztion arteko elkarbizitza onuragarriagoa izan dadin.

5.- HELBURUAK.

Aurreko ondorio guztiak kontuan izanda, beraien erlazionaturiko helburuak zehaztu nahi ditugu:

1. Eskolako komunitateko kide guztiak eskolako partaide sentitzea.
2. Eskolako kideen arteko komunikazioa hobetzea, enpatiaz jokatzuz eta denok askatasunez hitz egin dezakegula bermatuz.
3. Ikasleen arteko tratu txar eta sortzen diren gatazken konponbide egoki eta hezitzaileak lantzea.
4. Harrera Plana berrikusi eta gure eskolako egoera berrira egokitzea.
5. Eskolako kide guztien eskubideak eta betebeharrak jakinaraztea eta lantzea.
6. Ikasleak elkarrekiko lanean trebatzea.
7. Elkarbizitza Planaren hedapen egokia egitea, Plana zertan datzan eskola komunitate osoari argi azalduz.

6.- ELKARBIZITZA BEHATOKIA (EB).

Elkarbizitza Behatokia (EB) ikastetxeko elkarbizitza kudeatzeko organoa da. Bere xedea harreman positiboak eta elkarbizitza osasungarria eraikitzen laguntzea da. EB-ren bidez lortu nahi duguna da eskolako kide guztiak baloratu eta entzunak izatea, eta, ikastetxean erabakiak hartzeko orduan, erantzukizuna eta partaidetza guztiona izatea.

Elkarbizitza Behatokiak jardun demokratikoa eta norbanakoaren autonomia sustatu nahi ditu, berdinen arteko harremanak bultzatuz. Eskolako kide guztiek izan behar dute beraien erabakiak hartzeko modua, errespetua, elkarriketa, negoziazioa eta adostasuna oinarritzat hartuta.

6.1.- ELKARBIZITZA BEHATOKIA: KIDEAK.

- Zuzendaritza-taldeko kideren bat.
- Gurasoen bi ordezkari.
- Ikasleen bi ordezkari.
- Jantokiko arduraduna.
- DBH eta DBHOko Orientatzailea.
- HH eta LHko kontsultorea.
- Elkarbizitza Planaren arduraduna (DBH eta DBHOko irakaslea)

Sektore bakoitzak ahalegindu behar du bere taldea antolatzen eta taldekideak dinamizatzen, era horretan kide guztiek partaidetza aktiboa izan dezaten.

6.2.- ELKARBIZITZA BEHATOKIA: FUNTZIOAK.

1. Elkarbizitza Plana egin, osatu, eta abiarazi nahi dugu. Ikasturtean zehar Planaren jarraipena eta ebaluazioa egin nahi dugu Urteko Memorian jasotzeko.
2. Eskolako kide guztien parte-hartze aktiboa bermatu nahi dugu.
3. Partaide izateko sentimendua sustatu nahi dugu harreman-arlo guztietan.

4. Aukera eta tratu-berdintasuna zaindu nahi dugu, prozesu eta harreman guztietan.
5. Hezkuntza Komunitate guztiari harreman positiboak sustatzen laguntzeko jarduerak proposatu nahi ditugu (jaialdiak, antzerkiak, emozioak ondo bideratzeko tailerrak...) batez ere gatazkak konpontzeko gaitasunak eta komunikazio-ahalmenak landuz.
6. Eskolaren elkarbizitza-arauak aztertu nahi ditugu (agerikoa: AJA, Ikasleen Eskubide eta Betebeharren Dekretua... eta ezkutukoa: idatzita ez dagoena), araudiaren diagnostikoa eginez eta hobetzeko neurriak aholkatuz.
7. Harremanak hobetzeko, proposamenak, egonezinak eta iradokizunak jaso nahi ditugu estamentu guztiengandik, era horretara gatazkak konpontzen eta elkarbizitza osasuntsua eratzen ikasteko.
8. Egunerokotasunean sortzen diren beharrak eta gatazkak kudeatu eta bideratzeko ekintza-protokoloak proposatu nahi ditugu.
9. Berdinen arteko balizko tratu txarrak edota indarkeriazko kasuak detektatu nahi ditugu (triptikoak, galdeketak, testak... osatuz) eta adostutako neurriak lehenbailehen martxan jartzen direla bermatu.
10. Lankidetzaren sustatu nahi dugu inguruko beste erakunde, organizazio eta entitate batzuekin, elkarbizitza positiboa eta kooperazio-kultura sustatzeko.
11. Behatokiak egin behar duen lana plan batean jaso behar da eta, ondoren, horren ebaluazioa eta ondorioak ikastetxeko Urteko Planaren Oroitidazkian sartuko dira.

6.3.- ELKARBIZITZA BEHATOKIA: FUNTZIONAMENDUA.

Behatokiak berak zehaztuko du zein izango den bere funtzionamendua; horretarako, betiere, Behatokiaren helburuak, asmoak, zereginak, baliabideak eta partaide-kopurua izan beharko ditu kontutan. Oso ondo zaindu eta kudeatu behar da ikasleen parte-hartzea, benetan eraginkorra izan dadin.

Bere funtzioak era egokian bete ditzan, gutxienez, lau bilera egingo ditu:

- Ikasturtearen hasieran (Behatokiaren eraketa eta lanaren plangintza eta difusioa).
- Lehenengo eta bigarren hiruhilabeteko amaieran (lanaren jarraipena eta balorazioa)
- Ikasturte amaieran (ebaluazioa eta memoria).

7.- ELKARBIZITZA PLANAREN ANTOLAKUNTZA-IRIZPIDEAK ETA FUNTZIONAMENDUA.

7.1- OSATZE, ONARPEN ETA APLIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Elkarbizitza Plana egiteko 2012-2013 ikasturte hasieran lan-talde bat sortu zen non ikastetxeko etapa guztiak eta Zuzendaritza ordezkatuta zeuden. Planak forma hartzen zuen heinean, Elkarbizitza Behatokiko partaideek horren berri izan zuten eta bere proposamen eta ekarpenak adierazi zituzten.
- Elkarbizitza Behatokiko partaideen laguntza eta onespenearekin behin-behineko Plana sortu zen.
- Onarpen-prozesua bukatzeko ikastetxeko Klaustroak eta Ordezkaritza Organo Gorenak Plana ezagutuko dute, eta onartuz gero, behin betiko bihurtuko da.
- Elkarbizitza Plana aurrera eramateko irakaslea izango da jarrera-arazoak eta gatazkak bideratuko dituen lehenengo pertsona, beti ere HH-LHko aholkulari / DBH-DBHOk orientatzaile eta Zuzendaritza taldearen laguntzarekin.
- Horrez gain, ikastetxeko edozein partaidek (ikasle, irakasle edo guraso izanik) elkarbizitzari **kalte larria** eragiten dion jarrera desegoki bat sumatzen badu, Zuzendaritza Taldera jo behar izango du. Zuzendariak, gaur egun indarrean dagoen legedia kontuan hartuta, gatazken protokoloa martxan jarri, gainbegiratu eta egokiak ikusten dituen erabakiak hartuko ditu.

7.2.- IKASTETXEKO BESTE DOKUMENTUEKIN LOTURA-IRIZPIDEAK.

- Elkarbizitza Plana Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren zati bat da eta ikastetxeko beste dokumentuekin koherentzia mantendu behar izango du.
- Ikasturteko Elkarbizitza Plana Ikastetxeko Urteko Planean agertuko da, ikasturtean zehar landuko diren helburuak, jarduerak eta ebaluazioa zehaztuko dituelarik.

- Elkarbizitza Planak Ikasleen Eskubide eta Betebeharren Dekretua eta ikastetxeko AJA (Antolaketa eta Jarduera Araudia) oinarritzat hartuko ditu.

7.3.- BIZIKIDETZA PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.

Elkarbizitza Behatokia Planaren jarraipenaren arduraduna izango da. Ikasturte bukaeran Urteko Elkarbizitza Planaren ebaluazioa burutuko du eta hurrengo ikasturteko Elkarbizitza Plana garatzeko irizpideak adostu eta jarduerak proposatuko ditu.

8.- ELKARBIZITZA PLANAREN HEDAPENA.

Oso garrantzitsua deritzogu Elkarbizitza Plana eta Elkarbizitzako Urteko Planaren hedapen egokia egitea ikastetxeko estamentu guztien artean.

Elkarbizitza Plana eraginkorra izateko eta guztion artean ondo hedatzeko ikasturtean zehar ahalik eta momentu gehien erabili nahi ditugu:

- Ikasleekin: tutoretza saioak, ordezkarien bilerak...
- Gurasoekin: kurtso hasierako geletako bilerak, tutore edo irakasleekin egiten diren banakako elkarrizketak...
- Irakasleekin: Klaustroak, Ziklo eta Mintegi bilerak, Formakuntza-saioak...
- Estamentu guztien ordezkariekin: Ordezkaritza Organo Gorenaren bilerak.

Horrez gain, ikastetxeko web orriak (www.ikasbidea.hezkuntza.net) aukera paregabea emango digu Elkarbizitza Plana ikastetxeko partaide guztiei helarazteko: web orrian alde batetik, ikastetxeko Elkarbizitza Plana guztion eskura egongo da eta bestetik, ikasturte bakoitzean Elkarbizitza Behatokiak proposaturiko helburu zehatzak, jarduerak, denboralizazioa..., Ikasturteko Elkarbizitza Planean jasotako guztia, aztertzeke izango ditugu.